



Arartekoaren 2015R-1875-14 Ebazpena, 2015eko uztailaren 15ekoa. Horren bidez, Artziniegako Udalarari jabari publikokoa den lursail baten defentsarako espedientea egoki izapidetzeko gomendatu genion.

Aurrekariak

1. (...) eta (...)k kexa bat aurkeztu zuten erakunde honen aurrean Artziniegako Udalak ez dielako erantzun eta ez duelako jardunik egin eskubide eta ondasun publikoen defentsan. Aurrekari gisa adierazi dute 2007an erakunde honek kexa bat izapidetu zuela erreferentziadun kexaren gaiarekin lotuta (1478/2007/29 erref. zk.). Orduko hartan honakoa ondorioztatu genuen:

“Zehazki, alkateordearen 2008ko apirilaren 4ko ebazpenaren kopia bidali diguzue; horren bidez, Santa Coloman bide publikoa hartzeari buruzko ikerketa-prozedura hasi da, partikularrek hartu duten ala ez ikusteko.

Aurreko gogoetak oinarri hartuta, amaitutzat jotzen dugu gure esku-hartzea, interesdunak bere kexan azaldutako arazoa konpontzeaz baitago”.

2. Kaltetuek salatu dute udalak ez duela espediente hura behar bezala izapidetu. Hortaz, 2014ko ekainaren 16ko idazkiaren bidez, 736-A katastro-lurzatiaren alde egiteko nahitaezko espediente izapidetu zezaten eskatu zuten, aipatutako lurzattia herri-izaera edo izaera publikokoa dela uste baitute.
3. Artziniegako Udalak gure informazio eskaria erantzun zuen 129/2014 zenbakidun Alkatetza Dekretua aurkeztuz. Horren bidez, Katastro Zerbitzuari Artziniegako San Coloma Auzoan dauden udal lursailen katastro zuzenketa eskatzea adostu zen.

Dekretu honek adierazi zuenez, kexagileek aurkeztutako eskarien harira eta Artziniegako Udalean jasotako jabetza tituluak birpasatu ondoren, 736-A, 738-A, 26, A, B eta C azpilursailen katastro lursailen katastro mugetan akats batzuk hauteman dira. Ondorioz, Arabako Foru Aldundiaren Katastro Zerbitzuari aipatutako lursailen katastro zuzenketa eskatzea ebatzi du, guztiak Santa Colomako 4. industrialdean daudela, partikularren edo ezezagunen izenean, horien katastro titulartasuna udalaren izenean aitortzeko eskatuz, atxiki dituzten tituluen eta dokumentazioaren arabera.

4. Bere aldetik, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren Udal Zergen eta Katastro Zerbitzuak, 2014ko azaroaren 12ko ebazpen baten bidez, Artziniegako Udalak egindako eskaria ukatu zuen, honako gogoetengatik:



“Aurrena, kontuan izan behar da Foru Higiezinaren Katastroak oinarrian zerga helburua duten erregistroak direla, 1989ko uztailaren 19ko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 10. artikulua arabera, landa eta hiri ondasun higiezinaren datu eta deskribapen sorta batez osatuta daude (azalera, egoera, mugak, besteren artean), lurralde jabetza ezagutarazten dutena eta bere alderdi eta aplikazio ezberdinetan zehazten dutena.

Bere ezaugarri fisiko eta juridikoen frogatzea ematea helburu duten ondasun higiezinaren erroldak dira, baina Auzitegi Nagusiak 2006ko martxoaren 21eko bere epaian adierazi duenez, *“Katastroak ez du inolaz ere jabetzak zehazten, eta ez ditu egoera juridiko-pribatuak aitortzen edo babesten”*.

Kasu honetan, adierazitako lursailen katastroa titular bakoitzari audientzia eman ondoren, Alejandro Barcena Barcena-k, Ángel Aretxabala Torre-k, eta Teodoro Aguirre Canive-k alegazio idatzia aurkeztu dute udalaren nahiaren aurka eginez. Beraz, martxoaren 5eko 1/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 3.3 artikulua arabera, zeinaren bidez Higiezinaren Katastro Legearen Testu Bategina onartu zen, kontuan izanda: *“Kontrako frogarik ezean eta Jabetza Erregistroari kalterik egin gabe, haren adierazpen juridikoak gailenduko direlarik, Higiezinaren Katastroan jasotako datuak egiazkotzat joko dira”*, ez da egokia katastroa aldaketarik, planteatutako titulartasun auziaren gainean erabakiko den adierazpen judizialez gain”.

5. Azkenik, foru ebatzen honen ondoren, udalak ez du espedientearekin legezko moduan jarraitzeko jardunik edo izapiderik egin. Hori dela eta, egokia iruditu zaigu gomendio hau izapidetzea.

Gogoetak

1. Tokiko erakundeek euren ondasunen inguruan eskumen asko dituztela aipatuz hasiko gara. Hala, besteak beste, ikertzeko eskumena eta ofizioz berreskuratzeko eskumena, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Tokiko Erakundearen Ondasunei buruzko Araudiaren 44.1. a) eta c) artikuluan xedatutakoarekin bat.

Ikertzeko eskumen hori arautzerakoan, araudiko 45. artikulua xedatzen du tokiko korporazioek horien jabetzatik ondorioztatzen diren ondasunen eta eskubideen egoera ikertzeko ahalmena dutela, hori jasota ez badago, ondasun eta eskubide horien titulartasuna zehazte aldera. Ekintza ikertzaile horren baliatzea ofizioz erabaki ahal izango da, korporazioaren edo partikularren salaketaren bidez (araudiko 45. artikulua). Prozedura bera erabiliko da edozein unetan jabari publikoko ondasunen edukitzea berreskuratzeko, ikertzeko ekintza udal uziekin bat etorri ondoren (araudiko 71. artikulua).

Hortaz, ikertzeko ekintzarako eta, hala badagokio, edukitzea berreskuratzeko dagokion ekintzarako behar den aurrekontua honako hau da:





- Hizpide dugun ondasuna eta eskubidea jabetza publikokoa *"izatea"*.
- Ondasunaren titulartasuna jasota ez egotea eta ikerketaren bidez titulartasuna zehaztea.
- Hizpide den ondasuna jabari publikoko ondasuna da, erabilera publikoari atxikita dagoela aintzat hartuta.

Jurisprudentziak, eskumen edo ahalmen horien baliatzea zehazterakoan, azpimarratu du espediente horiek edukitza-eskaerara hertsiki mugatuta daudela eta hori behar bezala egiaztatu behar dela jabetza administratiboaren erabateko frogarekin, auzitegi arruntetan sor daitekeen jabariari buruzko edozein jarduera desberdinduta. Hala ere, ezin da saihestu baliabide pribilegiatu horrek –benetako ekintza interdiktalaren baliokidea- premisa bat bete behar duela. Alegia, ikertutako ondasunaren titulartasuna jabari publikokoa *"izan dadila"*. Gero, titulartasun hori zalantzan jarri ahal izango da eta jurisdikzio zibilaren arloko auzitegietan ebatziko da. Hala ere, ikertzeko eta edukitza berreskuratzeko ekintza honetan, honako hau hartu behar da oinarri: jabari publikokotzat jotzen den ondasuna da, herri-administrazioak haren jabetza zuen eta aipatu jabetza eteteko eskubidea ez duen norbaitek legez kontrako moduan eten du.

2. Kasu honetan, ez dugu udalak 2008ko apirilaren 4ko Alkateordearen ebazpenaren bidez adostu zen ikerketa ekintza burutzeko dagokion prozedura jarraitu den gaineko informaziorik. Horrela, izapidetu beharreko espedienteak ikerketa espedientearen hasiera akordioa Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea behar du, ikertutako ondasuna edo eskubidea identifikatzea baimentzen duten ezaugarriak adieraziz, eta aldizkariko ale bat Udalbatzaren iragarki-taulan hamabost egunez egon beharko du ikusgai (Ondasunen Araudiko 49.1 artikulua).

Hilabete bateko epean, iragarki-taulan argitaratzea amaitutzat eman behar denetik aurrera, ikerketa espedienteak kaltetu dituen pertsonak idatziz alegatu ahalko dute udalbatzaren aurrean euren eskubideari dagokiola uste duten guztia, euren alegazioak oinarritzen dituzten dokumentu guztien laguntzaz (Ondasunen Araudiko 50. artikulua).

Aurreko epea igaro ondoren, proba epe bat zabaldu beharko da eta egokitzen jotzen direnak burutu ondoren udalbatzaren zerbitzuek baloratuko dituzte eta espedientea interesdunei jakinaraziko zaie (Ondasunen Araudiko 51 eta 52. artikulua).

Azkenik, eskumena duen organoak adostu beharko du ikerketa espedientearen ebazpena, idazkariaren aurretiko txostenarekin. Ebazpena aldekoa bada, inbentarioan sartu eta udalbatzaren eskubideen eraginkortasunari dagozkion neurriak hartu beharko dira.





Inbentarioan sartzeko ondorioei dagokionez, Ondasunen Araudiko 20. artikulua ondasun higiezin idazpenek eduki behar dituzten datuak zehazten ditu. Horrela, beste batzuen artean, honakoak aipatzen ditu:

- Kokapena, finka eta ingurua kokatuta dauden leku zehatza adieraziz, eta landa-ingurune koetan, poligonoa eta katastro lurzatia aipatuz.
- Mugak.
- Bide publikoak direnean, bakoizpenerako beharrezkoak diren datuak azaldu beharko dira, eta bereziki, haien mugak, luzera eta zabalera.
- Erakundeari ondasuna emateko aintzat hartzen den titulua.
- Jabetza Erregistroko inskripzioaren signatura, inskribatzeko modukoa izatekotan.
- Helmuga eta zehaztu duen akordioa.

Ondasuna edukiarekin eta beharrezko informazioarekin inbentarioan izena eman ondoren, udalak, idazkariaren egiaztagiri baten bidez, ondasuna Jabetza Erregistroan izena eman ahalko du, lehendabiziko matrikulazioa edo izen ematea baldin bada, hau da, aipatutako ondasuna inoiz ez bada Jabetza Erregistroan izen emanda egon. Aldiz, ondasun publikoa hirugarren titularren izenean jarritako erregistroko izapideekin zati batean edo osorik kontraesana badu, udalak ohiko jurisdikziora jo beharko du hura ebatzi eta jakinarazteko, desadostasuna sortzen duen erregistroko izen ematea baliogabetzeari eta bertan behera uzteari dagokion jarduerak burutuz.

3. Aurrekoari kalterik egin gabe, udalak edukiaren berreskuratze ekintza ere abiarazi dezake, lehendabiziko gogoetan adierazi ditugun premisa eta baldintzekin, partikular batek jabari publikoa usurpatu badu betiere (Ondasunen Araudiko 70 eta 71. artikulua).

Ondorio hauetarako, ezin dugu ahaztu aurretik adierazi dugun bezala, ekintza hau udal administrazioak aurretik zuen edukia berreskuratzeko bakarrik erabili daitekeela, hau da, edukia berreskuratzeko exijitu daitekeen premisa da udalak ondasunaren eduki publikoa nahastuta ikusi izana hirugarrenen legez kanpoko jardunen bidez.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera, gomendio hau egiten diogu Artziniegako Udalari:

GOMENDIOA

1. Artziniegako Udalak 2008ko apirilaren 4ko ebazpenaren bidez adostu zuen ikerketa espedientea izapidetzeko, Toki Erakundeen Ondasunen Araudiaren 49. eta hurrengo artikuluen arabera, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa.





2. Kasu horretan eta ikerketa espedientearen ondorioz, udalbatzak ondare publikoaren defentsarako eskubideen eraginkortasuna lortzeko neurriak hartzeko.

